

2018-2019 IKASTURTEAN DOKTOREAK EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMARAKO DEIALDIA: ***Laguntza berriak***

Deialdiaren xedea

Programaren helburua da ikertzaileen prestakuntza sustatzea, doktorego programa baten bidez, doktore titulua lor dezaten eta kalitatezko zientzia ikerketari lotutako gaitasunak eta trebetasunak eskura ditzaten.

Laguntzen ezaugarriak

Laguntza berrien lerroa modalitate hauen arabera egituratzen da:

- **A modalitatea:** Ezarpen zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean.
- **B modalitatea:** Ezarpen zentroa Estatuko beste tokiren batean dagoenean.
- **I. modalitatea:** Ezarpen zentroa atzerrian dagoenean.

100 laguntza berri emango dira Ikerketa Orokorraren lerroan eta 2 laguntza berri Ikerketa Espezifikoarenean. Azken lerro horrek arlo hauek barne hartuko ditu:

- Polimeroen eta sistema makromolekularren ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Energiarako materialen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Material funtzionalen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Sistema biologikoen eta material bio-inspiratuen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Laguntzek doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte laguntzak erabiltzeko aldi osoan. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta beste hiru aldiz luzatu ahal izango da, aldi bakoitzean urtebetez.

Urteko ordainsari gordina 14.691 eurokoa izango da A eta B modalitateetan, eta 18.364 eurokoa I modalitatean.

Horrez gain, laguntzek erantzukizun zibilaren eta istripuen aseguru bat barne hartuko dute. I modalitateak bidaiako laguntza aseguru bat barne hartuko du, baita gehigarri bat ere, joan beharreko zentzora egin behar den joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko urtean.

Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak:

Gomendatzen da deialdiko oinarrien 25. artikulua kontsultatzeko: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802669e.pdf>

Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

Hautagaia arduratuko da eskaera betetzeaz, formulario elektronikoaren bitartez, eta eskaera erregistratu ere egin beharko du, deialdiko oinarrietako 22. artikuluan adierazitako bideetako edozein erabiliz. Horretarako epea **2018ko ekainaren 21ean (egun hori barne) amaituko da.**

Deialdi honetan, UPV/EHUko erregistro bulego hauek izango dira baliozkoak:

- 01 Erregistro Bulegoa, Arabakoa (Arabako Campuseko Errektoreordetza: Izardui komandantearen kalea 2, 01005 Gasteiz)
- 02 Erregistro Bulegoa, Gipuzkoakoa (Ignacio M^a Barriola ikasgelategia: Elhuyar plaza 1, 20018 Donostia).
- 03 Erregistro Bulegoa, Bizkaikoa (Errektoregoa, Sarriena, z.g., 48940 Leioa).
- 04 Erregistro Bulegoa, Bizkaikoa (Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83, 48015 Bilbo).

GARRANTZITSUA:

UPV/EHUko konpromiso dokumentua eskuratzeko izapidea:

Deialdiaren 27.6 artikulua adierazten duen moduan, UPV/EHUri atxikitzea aurreikusita duten eskatzaileen kasuan, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak konpromiso dokumentua eskatuko du ofizioz, hau da, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara joko du zuzenean. **Beraz, eskatzaile horiek ez dute aipatutako dokumentua erantsi beharko aplikazioan.**

Harremanetarako:

Kontsultak Eusko Jaurlaritzako "Zuzenean" zerbitzura bideratuko dira:

- Euskal Autonomia Erkidegotik: 012
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 945 018000
- Atzeritik: 00 34 945 018000

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/dir_u_laguntza/-/dir_u_laguntza/2018/predoc-berri/